



BALOREZKO PROPOSAMENA

Enpresa honetan parte hartzen dugunak Hur Leturia, Iraitz Maritxalar, Markel Otaegui, Olaia Felipe eta Maialen Villarreal gara. Aplikazio **berritzaile** bat aurkezteko asmoa dugu, "Lanbrora" deiturikoa, gure produktuak lanbro ezezagunera kezka gabe joaten lagunduko baitizu. Gailu erabilienean eskaintzen ez dituzten mendi bideak eta hauen ezaugarriak ikusteko aukera emango du aplikazio honek, baita norberak mendi bideak igotzeko aukera ere. Gainera, edonor mendira joatean hori jartzeko aukera edukiko du, eta beste erabiltzaileak berarekin joateko aukera edukiko dute aurrez abisatzen badute.



Nahiz eta gure aplikazioa guztiz berritzailea ez izan, **ezaugarri berritzaile** batzuk dauzka, adibidez: jendearekin elkartzeko aukera ematen du, eta, teknologian oinarritutako gizarteko beharretara ongi egokitzen da, batzuetan isolatuta bizi garela dirudi eta. Ezaugarri berezi honek, jende berria ezagutzeko aukera emateaz gain, komunitate bat ere sor dezake, honela erabiltzaileak erakarriz.

Beste gailu ugari ez bezala, gurea software librea izango da, eta edonork berritu eta hobetu ahalko du aplikazioa, honela, komunitate bat sortuko da eta aplikazioa etengabe hobetzen egongo da. Gainera, aplikazioan aniztasuna egongo da eta **erabilerrazagoa** bihurtzen joango da, erabiltzaileentzat erosoagoa izateko mendira joatea, informazio eguneratua izango baitute.

Hizkuntza ugaritan egongo da aplikazioa, baita hizkuntza minoritarioetan ere, honek hizkuntza txikiek teknologian duten presentzia handituko du, hizkuntza horien desagertzeko aukera txikituz. Merkatuko beste gailuek ez dituzte euren aplikazioak hizkuntza ugaritan eskaintzen, beraz, hizkuntza horiek hitz egiten dituztenek gure aplikaziora jo beharko dute, euren hizkuntza eskaintzen duen merkatuko produktu bakarra izango baita.

Horrez gain, gure aplikazioak **diseinu** erakargarria edukiko du eta oso **erabilerraza** izango da, izan ere, barrura sartu eta zure inguruko mapa agertuko da eta berehala ohartuko zara zure inguruko zein ibilbide egin ditzakezun, eta bi kliketan ibilaldi horren informazio guztia agertuko zaizu: luzera, zailtasuna, burutzen igaroko duzun denbora, eguraldia hurrengo



egunetan... Eta denbora oso gutxian zure ibilaldi luzea edo goiz pasa martxan jartzeko prest egongo zara, mendira joan aurretik egin beharko zenukeen planifikazioa eta **lana izugarri erraztuz**.

Erabilerraza izateak teknologia zaleak ez direnak ere erakarriko ditu, edonorentzat izango baita erraza aplikazioa erabiltzea, eta ez da teknologiaren jakintza berezirik beharko. Gainera, aplikazioa ez da mendizaleei bakarrik zuzendua egongo, mota askotako mendi bideak egongo direnez, edonork gozatu ahalko du mendi bide horietaz

Balore kuantitatiboari dagokionez, **doainik** eskainiko den aplikazioa izango da, edonorentzat irekia eta **eskuragarria** izan dadin. Oinarri berdineko aplikazio gehienak ordaindu egin behar izaten dira, eta gure diru sarrera beste nonbait egongo denez, doan izango da, eta merkatuko beste produktuetatik nabarmenduko gara.

Gaur egun gure ingurunean oinarri berdineko aplikazioak badaudenez, gure aplikazioa erabiltzeko eskuragarritasunarengatik, eta gizarte sozialean eskua hartzearen ondorioz lortuko ditugu erabiltzaileak. Horrela, denon artean komunitate anitz bat sortuko dugu, non denok gai izango diren mendi bideez gozatzeko jende berria ezagutuz.